



Komaren erabilera badaezpadako batzuk (II)

- Koma mendeko perpausaren barruan
- Koma eta...
 - perpaus osagarriak
 - zehar-galderak
 - *baina*
 - galdegaia
 - existentzia-esapideak
 - gutunetako eta mezuetoako agurrak
 - etenpuntuak



Koma mendeko perpausaren barruan

Mendeko perpausen barruan komarik ez jartzea gomendatzen da:

- *Zenbait eraikinetan, [etxebizitzaren barruan, kanpoko tenperatura baxua delako, berogailua piztuta dagoenean], hormak eta leihoetako kristalak lausotu egin daitezke kondentsazio-arazoengatik.
- Zenbait eraikinetan, kanpoko tenperatura baxua delako etxebizitzaren barruan berogailua piztuta dagoenean, hormak eta leihoetako kristalak lausotu egin daitezke kondentsazio-arazoengatik.

Koma mendeko perpausaren barruan

○ Kontuan hartzekoak:

Mendeko perpausaren barruan elementuren bat bereziki tartekatu behar izanez gero, komaz bestelako puntuazio-markak erabil daitezke:

- Zenbait eraikinetan, **etxebizitzaren barruan** —**kanpoko tenperatura baxua delako**— **berogailua piztuta dagoenean**, hormak eta leihoetako kristalak lausotu egin daitezke kondentsazio-arazoengatik.
- **Hidrokarburo asegabe bat** (**adibidez, butilenoa edo isoprenoa**) **polimerizatuz** edo hidrokarburoak estirenoz edo butadienoz kopolimerizatuz sortzen da elastomero mota hori.
- **Lurraren gainazaletik gertu dauden atmosferako gasek** (**batez ere ur-lurrunak, karbono dioxidoak, metanoak, ozonoak, oxido nitrosoak eta klorofluorokarbonoek**) **atxikitzen duten beroaren eraginez** Lurraren atmosfera eta gainazala berotzeari esaten zaio *berotegi-efektu*.
- Gaur egun, badakigu **familiek hezkuntza elebiduneko ereduetan** —**non familia-testuingurukoa ez den hizkuntza bat edo gehiago irakasten baitira oso goiz hasita**— **borondatez parte hartzea** bermerik onena dela eskolan irakasten diren hizkuntzen aldeko jarrera garatzeko.



Perpaus osagarriak¹ eta koma

Aditzaren eta perpaus osagarriaren artean ez da komarik jartzen:

- (...) baina horrek ez du esan nahi hasten denak nahitaez irabazi behar duenik.
 - * (...) baina horrek ez du esan nahi, hasten denak nahitaez irabazi behar duenik.
- Arazoa zen ez zuela izozmendiaren norabidea zehazten.
 - * Arazoa zen, ez zuela izozmendiaren norabidea zehazten.
- Jaurlaritzak esan du lehenik lur azpian zer dagoen jakin nahi duela.
 - * Jaurlaritzak esan du, lehenik lur azpian zer dagoen jakin nahi duela.

1) Koldok bi liburu ekarri dituela esan dit Mikelek:
Koldok bi liburu ekarri dituela = perpaus osagarria

Perpaus osagarriak eta koma

- Kontuan hartzekoak: tartekiak.

Perpaus nagusiari dagokion tarteki bat jarritz gero aditzaren eta perpaus osagarriaren artean, komen artean joango da tartekia:

- Horrek **adierazten du, praktikan**, esperimentuaren emaitzak argiago adieraziko digula bi mundu horietatik zein den benetakoa.
 - Horrek, **praktikan**, adierazten du esperimentuaren emaitzak argiago adieraziko digula bi mundu horietatik zein den benetakoa.
- Eskaintza horrek **adierazten du, nolabait**, filmak baduela zerikusirik Hollywoodeko zinemagintzarekin.
 - Eskaintza horrek, **nolabait**, adierazten du filmak baduela zerikusirik Hollywoodeko zinemagintzarekin.
- Horrek **esan nahi du, batzuetan**, istorioaren zati labur eta bateratua islatzen duela kontaktak.
- Tartekiari dagozkio komak.



Zehar-galderak eta koma

Aditzaren eta zehar-galderaren artean ez da komarik jartzen:

- Esan behar didazu nola egin duzun lana.
 - *Esan behar didazu, nola egin duzun lana.
- Hala, bada, galdetu beharko dugu ea zergatik den irakaskuntza hain bakana animalia-erreinuan.
 - *Hala, bada, galdetu beharko dugu, ea zergatik den irakaskuntza hain bakana animalia-erreinuan.
- Ikusi berri dugu zer den soinua eta nola balia ditzakeen zinemagileak eskura dauden soinu mota ugariak.
 - *Ikusi berri dugu, zer den soinua eta nola balia ditzakeen zinemagileak eskura dauden soinu mota ugariak.



Koma eta baina

Bainaren ostean ez da komarik jarri behar:

- Hotel merkea kontratatu zuen Internet bidez, baina esandakoa baino gehiago ordainarazi nahi diote.
 - *Hotel merkea kontratatu zuen Internet bidez, baina, esandakoa baino gehiago ordainarazi nahi diote.
- Batzuek, lotsagatik edo beldurragatik, ihes egiten diete arazoei, baina jakina da hortxe jarraituko dutela bizitza guztian, handituz eta handituz.
 - *Batzuek, lotsagatik edo beldurragatik, ihes egiten diete arazoei, baina, jakina da hortxe jarraituko dutela bizitza guztian, handituz eta handituz.



Koma eta baina

- Kontuan hartzekoak: tartekiak.
 - Urtero, gero eta jende gehiagok behar izaten du laguntza, **baina, zoritxarrez**, gugana iristen diren elikagai kiloak ez dira erritmo berean handitzen.
 - Badira salbuespen batzuk, hala nola gosaritako zerealak, zeinek bitaminak eta mineralak ere ematen baitituzte, **baina, oro har**, izozkiek, galletek, pastekek, opilek eta gisakoek kaloriak besterik ez dute ematen.
 - **Baina, esan dugunez**, alienazioa aurrerapenaren kontrakotzat har daiteke, bai eta indibidualismoaren antitesi eta alderantzikatzetzat ere.

•Tartekiari dagokio *bainaren* osteko koma, ez *bainari*.



Koma eta baina

- Kontuan hartzekoak: aurkaritza.

Aurkaritza adierazteko erabiltzen denean (*ordea* edo *berriz* lokailuak bezala) koma artean joaten da *baina*:

- Beste Eskola tekniko batean zebilen une hartan, sukaldari izateko ikasketak egiten; garraio publikoa hartzen zuen, eta hasia zen bere kasa bizitzeko trebetasun zenbait bereganatzen. Igandeetan, **baina**, marrazten aritzen zen, eta lana, bai enkarguzkoa, bai bere kabuzkoa, ugarituz zihoakion astetik astera.



Koma eta baina

- Kontuan hartzekoak: kontzesiozko perpausak¹.

Kontzesioa adierazteko erabiltzen denean, kontzesiozko perpau-saren bukaeran joaten da *baina* (halakoetan menderagailu modu-koa da), eta koma jartzen da haren eskuinean.

- Zoom-planoetako koadroa mugikorra da **baina**, kamera geldirik dago.
- Aurkakoa pentsatu ohi da **baina**, ibai handietako lasterrak goi-ibarretakoak bezain bizkorrak izan daitezke.

Perpau nagusiaren bukaeran (aditz nagusiaren eskuinean) ere joan daiteke kontzesiozko perpausa:

- Kamera geldirik dago, zoom-planoetako koadroa mugikorra da **baina**.

1)

- **Mugitzeko gaitasun guztia galdu duen arren**, biktimak guztiz kontziente irauten du.
- Deskribapen horrek ez darabil hitzik, **nahiz eta hitzetara ekar daitekeen**.

“Mugitzeko gaitasun guztia galdu duen arren” eta “nahiz eta hitzetara ekar daitekeen”= kontzesiozko perpausak



Galdegaia eta koma

Galdegaiaren eta aditzaren artean ez da komarik jarri behar:

Mikel etorri da gaur goizean. [Nor etorri da gaur goizean?]	≠	Mikel, etorri da gaur goizean. [Mikel (bai) etorri da gaur goizean.]
Gaur goizean etorri da Mikel. [Noiz etorri da Mikel?]	≠	Gaur goizean, etorri da Mikel. [Gaur goizean (bai) etorri da Mikel.]

Existentzia-esapideak eta koma

Existentzia-esapideetan, perpaus erlatiboa izenaren eskuinera eramaten denean, erlatiboaren eta izenaren artean ez da komarik jarri ohi.

- Hurrengo adibidean ikusiko dugun moduan, **badago** **esperimentu bat** **azalerak** **uharteetako espezie-aberastasunean zuzenean eragin dezakeela** egiaztatzen duena.
 - ✧ Hurrengo adibidean ikusiko dugun moduan, **badago** **esperimentu bat**, **azalerak** **uharteetako espezie-aberastasunean zuzenean eragin dezakeela** egiaztatzen duena.
- Beste kasu batzuetan bezala, **bada** **H-ren forma bat** **aritmetikoki baliokidea dena** baina kalkuluari dagokionez errazagoa dena.
- Arazo hori konpontzeko, **badaude** **memoria batzuk** **SRAM memorien atzipenen antzekoak egiteko aukera ematen dutenak**, baina elikatze-tentsioa kendu arren informazioari eusteko gai direnak.
- Horregatik, gaur egun **badira** **teknologia berri batzuk** **elikatze-tentsio desberdineko zirkuitu integratuekin lan egiteko aukera ematen dutenak**.



Gutunetako eta mezuetaiko agurrak eta koma

Gutunetan eta mezuetan, ez da egokia bi puntuen ordezkoma idaztea hasierako agurraren bukaeran:

- Ehulkulisteko kide hori:
- Kaixo, Andoni:
- Egun on, Libe:
- Zuzendari jaun/andre hori:



Etenpuntuak (...) eta koma

Etenpuntuaren aurrean (eskuinean) ez da komarik jarri behar:

- Estaldura-piezaz osatua egon behar du (teilak, arbela, plakak...)
- *Estaldura-piezaz osatua egon behar du (teilak, arbela, plakak, ...)